



OPARIAK BANATUTA, AGUR ESAN DU IKAZKINAK

Eskualdera iritsi zen, zintzo-zintzo, urtero bezala Olentzero, bereziki, etxeko gaztetxoenen gozamenerako »6

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2007-12-27**

V.URTEA 1.322.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Jende ugari ari da dagoeneko gerturatzen Kultur Etxera. Gustuko gauzak erosi, eta laguntzeko aukera dago. E. EZBIZA



Itxaro Lizarraga eta bere alaba Lorearen jaiotza udaletxean dago ikusgai. N.G.

Herritarrek eginiko jaiotzez apaindurik, herriko txokoak

LEITZA Lau jaiotza daude ikusgai: Elizan, udaletxean, karrapean eta Oialde Txokon 7

SAHARA ETA EKUADOR LAGUNTZEKO **MERKATU** **TXIKIA, ZABALIK**

TOLOSA Laskorain ikastolak antolatzen duen ekimenak hamabi urte bete ditu aurten; Kultur Etxean dago irekita, goizez eta arratsalde z

200 ANIMALI EZBERDIN BAINO GEHIAGO

TXAKURRAK, KATUAK, BAPETUEAK, HURDIAK,
KROKODILOAK, KATAGORRIAK, UNTXIAK, KUXAK,
HAMSTERRAK, JERBOAK, ZELAIETAKO TXAKURTXOAK,
PETAURIOAK, TXORRAK, MARRAZTIAK, ANFYRIOAK,
ARRAIN TROPICALAK, ITSAS ARRAINAK,
URI HOTZETAKO ARRAINAK, OINOGABEAK.

AKULARIOAK, TERRARIOAK, KADOLAK, ESTANKEAK,
MARISKEROAK : AHOLKULARITZA, SALMENTA,
GARRAIZA, INSTALAZIOA, MANTENIMENDUA.

MOTA GUZTIKO OSAGARRI, JANARI,
LIBURU ETA ALDIZKARIAK.

www.arratxo.com 943 533 000 autobus geltokian: aurrean, (BERGARA (GIPUZKOA))



arratxo
maskotak
osagarriak eta zerbitzuak

INAUTERIAK 2008



Materiala prest dago! ADI! urtarrilaren 31 ostegun gizena



Elbarrena Industrialdea
Tel.: 943 888 232 Zaldibia

www.jaiakdenda.com

Gipuzkoako mozorro dendarik handiena
Ordutegia: Astelehenetik larunbatera: 10:00-13:00 / 16:00-20:00





Haur Kabareta izango da, haurrentzat, Leidor antzokian. HITZA

Gabonetako egitarauaren baitan, gaur Haur Kabareta

Aisia » Leidor antzokian izango da, 17:00etan; honez gain, puzgarriak eta haur jolasak izango dira gaur eta bihar Zerkausion.

ERREDAKZIOA

Gaur, 17:00etatik aurrera, Leidor antzokian Haur Kabareta izango da. Hau Agerre Teatro taldearen produkzioa da. Parte hartzen duten aktoreak, Ines M. de Iturrate eta Santi Ortega dira. Elena Bezanillaren zuzendaritzapean ariko dira.

Kabaret honetan musikari ospetsuek sortuko dute umeei kanon bat, hain zuzen barazki musika tresnenkin. Protagonistak, bi haur bezain

xalo, hor ariko dira jo eta su entzule-ikusleak beraien kantueta sarrazten. Haurrei bidea jarriko diete musikarekin jolas egiteko, edonork izango du aukera maisu zuzendutako dago ikuskizun hau. Aipatzekoa da ere, Haur Kabareta 2008ko Max sarietako euskarazko testu hobenerako izendatua izan dela.

Puzgarriak eta haur jolasak

Gabonetako egitarauaren baitan, gaur eta bihar haurrentzako puzgarriak eta jolasak egongo dira Zerkausion. Ordutegia ondorengo izango da: goizean, 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldean, 16:00etatik 19:30era.



Ateak ireki ditu Laskorain ikastolak antolatutako XII. Merkatu Txikiak. ESTI ZEIZA

Berriro zabaldu ditu ateak, ikastolaren Merkatu Txikiak

Gizartea » Laskorain ikastolak antolatuta Kultur Etxean izango da datozen egunetan; aurtengo leloa 'Eutsi elkartasunari' da.

ERREDAKZIOA

XII. aldiz ireki ditu ateak Laskorain ikastolaren Merkatu Txikiak. Ikastolako hezkuntza komunitatearen ekimenaren helburua da, «inguruko eta kanpoko giza beharrez jabetu, kontzientzia zabaltzeko eta ekonomikoki laguntzea». Honetarako, hantetahemen bildutako jantziak, tresnak, altzariak, eta be-

te hainbat gauza jarri dituzte salgai Kultur Etxean.

Elkartasun kanpaina hau urtarilaren 6an amaituko da. Merkatu Txikia goizez, 11:00etatik 13:00etara egongo da zabalik, eta arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara.

Bi proiekturi laguntza

Aurtengo Merkatu Txikiarekin bereziki bi kanpaina bultzatu nahi dituzte. Alde batetik, Laskoraingo bi ikasle ohiek, Ane Illunbe eta Izaskun Azurmendik egindako proposamenari erantzunez, Ekuadorko Los Rios probintzian, Baba kantoian, iaz hasitako gara-

penarekin jarraitzea. Bestetik, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin bat eginez, *Sahara Hurria* egunkaria lagunduko dute, baita generadore bat erosi, eta balioanizteko zentro bat hornitzen lagunduko dute.

Asmo hauek bideratzeko, aurreko urteetan bezala, etxe, denda, taberna, lantokiak... eman dituzte gauzak, elkartasun egitasmo hau ahalbidetzeko.

Soberan gelditzen dena

Merkatu Txikian saltzen ez dena, Saharara eta Emaus elkartera bidartuko da. Horrez gain, aurreko urteetan bezala, Emaus erakundearen parte-hartzeari esker, altzariak, armairuak, sofak eta bestelako altzariak biltzeko aukera ere badago. Beraz, kanpainak irauten duen bitartean inork bere altzariak kentzeko asmorik balu, Emaus Fundazioak jasoko litzuke, ondoren konpondu eta berriro salgai jartzeko. Interesatuak 943 45 98 74ra deitu dezakete.

'Eutsi elkaratsunari'

Aurten, *Eutsi elkaratsunari* izango du leloa ikastolakoek landuko duten egitasmoak. Hala, «ikasleak balioak, jarrerak, emozioak eta portaerak poliki-poliki hobera aldatzeko asmoz» ondorengo balioak landuko dituzte: errespetua gauzei, pertsonari eta giza eskubideak kontuan hartzea, gatazkak era baketsuan konpontzeko elkarriketa bultzatzea eta esku-hartzea ez ezik, gizarte justuago, berdineko eta solidarioagoa eraikitzeko elkarren arteko ardura eta konprometua bultzatzea.

Asmo guzti horiek aurrera eramateko Tolosako Udalaren Gizarte Zerbitzuen eta Ibarrik misio taldea eta Tolosaldea Sahararekin Gubernuz Kanpoko Erakundeak laguntza izango dute.

Iragarki laburrak

LANA

SALGAI

■ **Autoa.** Volkswagen Passat. 2004. 1.900 TDI. 130 zaldi. Interesatuak deitu 620 72 76 91era.

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Zumardi Txikiaren parean (Santa Klara). Bi logela, sukalde handia, ganbara eta berogailuak. Hormigoizkoa. Uzturre aldera bistak. In-

teresatuak deitu 665 70 86 35 telefono zenbakira.

■ **Zaintzailea.** Emakumea behar da Tolosan bi ume zaundu eta etxeko lanak egiteko. Deitu 677 45 25 97ra.

■ **Irakaslea.** Ingelesko irakaslea behar da arratsaldez klaseak emateko. Deitu 943 67 24 48 edo 686 97 19 62 telefono zenbakira.

X.

elkartasun krosa

san silvestre

abenduak 31, 16:00etan ZERKAUSIAN.

distantziak	
16:00H benjaminak	800 m
16:30H alebinak	1600 m
17:30H infantilak	2900 m
17:30H nagusiak eta beteranoak - NESKAK	5050 m
17:30H nagusiak eta beteranoak - MUTILAK	5050 m

sariak

17:00H benjamin, alebin eta infantilak kamisetak eta karpetak denentzat, dominak eta garaikurrak...

18:30H nagusiak eta beteranoak saskiak, afariak, garaikurrak eta polikiroldegiko bonoak eta 2 kirol-medikuntza azterketa

Izenematea
Abenduak 17tik aurrera, ARALAR KIROLAK dendan. Eta egun
Helduak aurrez 5 euro, egunean 7 euro(oparia: kamiseta) Haurrak DOHAN

Elkartasun kross honetan jasoko den dirua, Guabas errearen inguruko proiektua bultzatzeko erabiliko da, berez kolonbiara bidailiko da. Honetarako, diru bilketa egingo da egun berean

guabas

Kimetz

Mutil arropa
Kale Nagusia 13
943 24 94 96

Neska arropa
Kale Nagusia 21
943 67 38 62

www.kimetz.eu

E Elkarriketa digitala

JOKIN BILDARRATZ Tolosako alkatea

«Lanordu gehiago ditut orain, eta hori familiak jasaten du»

Tolosa » Pasa den ostegunean, hilaren 20an izan zen Tolosako alkatea HITZAren erredakzioan irakurleen galderak erantzuten; hau da bigarren zatia.

ERREDAKZIOA

Pasa den ostegunean, hilaren 20an, erantzun gabe geratu ziren galderak erantzun ditu Jokin Bildarratzek (Tolosa, 1963) irakurleen eskariari jarraituz. Elkarriketa digitalaren bigarren zati honetan lehenagotik erantzun gabe zeudenak sartu ditugu, hau da, ez ditugu sartu errepikatzen zirenak.

EAJk AHT bultzatu nahi du. Herriarrok ez dakigu zer dakarkien proiektu horrek. Elkarlana mugimendua soilik saiatu da herritarrik informatzen. Zer dela eta ez gaituzte behar bezala informatu? Zer iritzi daukazu herri bateko alkateak proiektu honi ezetz esan eta Espainiak bere egitea baimen hori? Zer eskubide ditugu herritarrok proiektu honekiko? [Eider]

Kaixo Eider: Askotan Alderdi Politikoa hitz egiten ari gara, baina kasu honetan erakundeez hitz egin beharra daukagu. Erabaki hauek hartu dituzten erakundeez, guztion artean aukeratu ditugunak. Beraiek hartzen dituzten erabakiak gustatuko zaizkigula ez, bai na beraiek hartu dituzte, bozkatu eta gero. Kasu honetan aspaldigainera. Eskerrik asko eta animo.

1.400 euro kobratzen ditudan langile bat naiz. Zuk hilean zenbat euro jasotzen dituzu? [Maria]

Kaixo Maria: dexentze gehiago. Beste gauza batzuk ere kontuan hartu beharko zenituzke, orduak, ardurak eta abar. Hala eta guztiz ere, seguruenik zure soldata lan hitzarmen baten baitan egongo da nerea bezalaxe.

AHTren inguruan zergatik duzue dutzen jarrera? Ez duzue informazioa zabaltzen: zergatik ixiltasun eta ezkutaketa hau? Propaganda jaso dut etxean, baina ez du nondik nora pasako den informatzen, zein lursail okupatuko dituen, zein baserri kaltetu... [Martín]

Martín: eta... nahiago horrela izatea, ez dut uste bide logikoena hainbat lur jabe eta abar folletobaten bitartez gauza hauetaz enteratzea. Egiten duzun planteamenduan arrazoi guztia duzu, alegia, jendea informatu nondik pasako den, zein eragin... Udaletxea ez na-



ITERRADILLOS

hastu guzti honekin, Udaletxearen lana azken finean zu eskatzen ari zaren guztia eskatzea: nondik doan bidea, jendea informatu, ahal den eragin txikiena izatea...

Egin dituzuen bide gorriak oso egokiak dira herrian zehar ibiltzeko, baita inguruko herrietara joateko ere, gehiago zabaltzeko asmorik bai? [Igor]

Eskerrik asko Igor: Bai oraindik asko falta zaigu proiektu osoa bukatzeko: irekitzen denean auzo bat, bidegorria ere sartuko da, gero ere egin ditugunak zaindu egin beharko dira... Eskerrik asko, hori ere alderdi politiko eta tekniko guztiei esker ere lortu da.

Zuk esana duzu legealdiaren helburu nagusiak ekonomia eta gazteriarekin lotuta daudela. Esan dezakezu txuletoiaren antzeko ekintza elitista hauek non sartzen dituzun programa honetan? [Tolosar bat]

Kaixo tolosarra: ez dut konpartitzen elitista denik feri hau; hala eta guztiz ere, ekonomia-aren inguruan, garapena, ezagutza, turismoa eta abar luze bat jar daiteke ekintza honen helburu bezala; edo babarruna, edo Gabonetako Azoka...

Ze erantzun emango zenieke etxe biziaren erabilera txarra jasan duten jabeen eta orain Visasaren pasibitatearen aurrean zer egin ez dakitenei? Prest al zaude zure bulegoan nirekin hontaz hitz egiteko? [Inaki Arana]

Kaixo Inaki: elkarrekin egongo gara, beraz, uste dut erantzun dizudala, ezta?

2008an izango ahal duzu txirrindularitza proba profesionalik Tolosan? [Iep]

Kaixo Iep: Oraindik ez dugu garbi;

zein eskaintza dauden ikusi eta kirol arduradunarekin hitz egin eta gero aztertuko dugu; posible balitz...

Zure programaren lehenasun bat gazteriarena izanik, Nola justifikatu dezakezu, txirrindularitza profesionalerako teknifikazio zentroan 3,5 milioi euro gastatzea, Oria txirrindulari eskolak eta gainontzeko oinarritzako kirol elkarteek, eskean ibiliz, boleto salmenta edo garagardo festaren bidez dirua lortu behar izatea? [Kirolzale bat]

Kaixo kirolzale: Uste dut ez dela ondo ulertu jarri duzun kantitate hori; hori Usabal kiroldegia-aren proiektuarena da, txirrindularitza teknifikazio lekura inputa dakiokeena, diru laguntzak lortu ahal izateko eman den inputazioa besterik ez. Hala eta guztiz ere, ez da txirrindularitza profesionala, afizionatua baizik.

Trenez ibiltzen naiz egunero, ederra da gero aukera hori, trenik gabeko herri batekoa naizelako jaiotzez. Zergatik orain batzuen trenetikiko gorroto hori, abiadura handiegia izango dela eta? Pentsatzen dut nahiko neurri hartuko dituzuela gauzak ongi egiteko. Zorionak herria martxan izateagatik, deus ez dago soberan. [Juanito]

Kaixo Juanito: Ondo dago eztabaidak mantentzea, ikuspegi demokratikoko gune batetik; lerro hori errespetatzen ez denean sortzen dira arazoak. Eta ona da eztabaidatzea behar den unean ere; hauek aspaldiko kontuak dira eta norbaitek ez ditu ondo egin etxeko lanak bere garaian, eta hemen dabil erre-kuperatu nahian... Besarkada bat.

Zenbat euro kostatuko zaio urtean udalari Usabalen ireki berri den Txirrindularientzat goi mailako zentrua? [Imanol]

Oraingoz ezer ere ez zaio kostatu; eta horrela jarraitzea espero dut.

Oso gustora gaude edadeko jendea, ikuskizun ugari ekartzen dituzelako Leidorrean, mila esker. [Margari]

Eskerrik asko Margari: Ba 2008a ere urte indartsua izango dela iruditzen zait. Ea guztion artean gozatzen dugun. Muxuak.

Zuk diozunez, Tolosa zenbat gauzatan erreferente izanik, noizko izango da erreferente politikan eta gizarte integrazioan? Eta etorkinen arloan? Eta alokairu sozialean? Eta oinarritzako taldeak bultzatzen eta ez elitezko ekintzetan? Eta herritarren benetazko parte-hartzean eta ez argazkietakoan bakarrik? [Herritar bat]

Kaixo herritarra: behingoz aukera on bat dago jendearen parte-hartzea bultzatzeko, hain anitza den herri honetan, Tolosa horrela delako, oso anitza, parte hartzailea... eta zuk diozun bezala erreferente izanik, bai kulturean, kirolean, gizarte zerbitzuetan... Pozten naiz hain ikuspegi baikorra izatea gure herriaz eta arrazoi duzu esaterakoan, bazela garaia gure herria bezalako bat Gipuzkoan eta Euskal Herrian erreferente izateko. Eskerrik asko.

Eudeleko lehendakari zeranez gero, asteko zenbat egunetan egoten zara Tolosako udaletxean lanean? Alkateari dagokion soldata osoa jasotzen jarraitzen al duzu? [Tolosar bat]

Kaixo tolosarra: nola ez ba? Egutero egoten naiz Tolosan, lehen bezalaxe, eta orduak lehen baino gehiago; benetan egoera hau noiztzen duena familia da, baina beraien laguntzaz eta zu bezalako jendearen laguntzaz seguruenik aurrera aterako gara; eskerrik asko zure laguntzagatik.

Asko gustatu zitzaidan lehenengo eguneko liburu azoka. Datorren urtean haunditzeko aukerarik ba al dago? [Jon]

Kaixo Jon: Beti daude horrelako aukerak, ikusi egin behar da, jendearen nahia, interesa... baina zure proposamena aztertuko dugu. Eskerrik asko.

**Txirrindulari naizen aldetik, marketing hutsa iruditzen zait Tolosalde inguruan egindako bidegorria, ezin baitira 15 metroko bide-
tik txirrindulariak eta oinezkoak batera sartu Ordizia-Tolosa bidean ibiltzen den txirrindulari kopuruarekin. Arazoa konpontzeko asmorik bai?**

Jende asko ibiltzen den bidea da; ni ere ibiltzen naiz zu bezalaxe eta nik ez dut konpartitzen arazo hori. Dakizun bezala bide hori Aldundiak egindakoa da; aztertuko dugu, baina berriro diot, nik behintzat ez dut zure ikuspegi berdina. **Zein politikari duzu gustuko? Eta ez gustuko? [Olaia]**

Edozein dela alderdi politikoa, izan dadila leiala eta langilea. Balore horiek onak izango da ziur, edozein pertsona eta langile bezala. **Tolosa bere azoka gastronomikoen-
gengatik egiten ari da ezagun eta Udalak izango du horretan arduraren zati bat. Zer interes dauka alkateak edo Udal taldeak Tolosaren irudi hori sustatzeko? Neurtu al da zenbateko irabaziak uzten dituen eta zenbateko gastuak sortzen? Tolosa ez al da babarrunak, txuleetak, arrautzak, goxoak eta hori dena baino gehiago? Besterik ezin al duzu kanpora saldu?**

Bai dela askozaz gehiago: Inauteriak, kultura... azken aldian azoka horiek daude, baina urtean zehar gai asko ateratzen dira; komertzioa ere... gauza asko. Zergatik Tolosa erreferente moduan? Nere ustetan inportantea da; ekonomia-aren inguruan? Ez dut zalantza izpirik hori ona dela; galdetu besterik ez duzu inplikaturik egon daitezkeen sektoreei. Etorkizunari begira horiek dira biltu behar diren mugimenduak eta Tolosa guztion artean indartu gainera. Eskerrik asko.

Hurrengo Abiba noiz izango ote den ba al dakizu? [Gazte bat]

Ziurrenik, urtarilaren 12an.



Amezketaren eta Alegiaren arteko poteoa antolatu dute

Gizartea » Amezketako Gazte Taldearen X. eta Alegiko Gaztetxearen XX. urteurrena ospatuz arratsaldean elkartuko dira.

NEREA URBIZU

Amezketako eta Alegia 8 kilometrora daude bata bestearengandik, baina ez da oso arrunta bien arteko ekitaldiak batera ikustea. Ez, ordea, etzi egingo dutena: Amezketako Gazte Taldearen 10 urteak ospatuz eta Alegiko Gaztetxearen XX. urteurrena dela kontuan izanik, etzi poteoa elkarrekin egingo dute Alegian, arratsaldean zehar.

Eguna Amezketan hasiko da, 10:00etan. Bertan, AHT gaitzat hartuz mendi ibilaldia egingo dute, «AHT proiektua aurrera ateratzeko, suntsituko lukeen bideetako bat Bedaiotik sartuko bailitzateke Nafarroatik barrena». Mendi ibilaldi honetan aukeren artean dagoen bide hau ikusiko dute. Lehenengo, Amezketako plazatik abiatu eta Larrondo aldera joango dira. Bertatik Bedaioko bailara ikusiko dute, «kaltetuko luketen zonaldea, hain zuzen».



Amezketako gazteak Alegiara joango dira herriarrek poteatzera. N. GARZIA

Ondoren, Azkarateko lepora joango dira, Nafarroako mugara, bertatik Aritz bailara ikusteko, eta «kaltetuko luketen paisaia ikusiko dugu». Handik berriz Amezketara jaitsiko dira.

Bazkariaren ondoren Alegiara

Bazkaria izango da pilotalekuan, eta oraindik ere izena emateko aukera dago tabernetan. Antolatzaileek izena lehenbailehen ematea eskatu dute paella jatera joateko, antolakuntza hobe izan dadin.

Auto karabanen Alegiara joango dira arratsaldean, bertan poteoan hasteko. 21:00etan Gaztetxean barrikotea izango da, eta 23:00etatik aurrera, berriz, Triki Rock bertso taldea eta Klaxon ariko dira (Zarama eta Itoizen estilokoak).

Alegian gaur eta bihar

Alegian gaur barrikotea dago 21:00etan, eta ondoren, Palestinari buruzko hitzaldia izango da. Bihar, berriz, gauean play-back prestatu dute.



Udalaren saskia Ormazabalentzat

ALTZO » Olentzeroren ekitaldian Imaz Bertsolaria Eskolako ikasle batek 30 zenbakia ateratu zuen Altzon: ondorioz Udalak urte amaierako herriarren artean zozketatzeko prestatzen duen gabonetako saskia Sekundino Ormazabali egokitu zaio. Pozik jaso du herriarrek saskia. HITZA

Laburrak

Herriarren produktuetako kutxa 987 zenbakiarentzat

IKAZTEGIETA » Olentzeroren etorrerarekin batera, Ikaztegiaren herriarrek emandako produktuez beteriko kutxa bat prestatu zuten, gero zozkatzeko. Zenbaki saritua 987 izan zen.

Guraso elkarteak zozketatutakoak

AMEZKETAKO » Amezketako guraso elkarteak Gabonetan zozketa egin du eta hauek dira zenbaki sarituak: 3.592 (saskiari dagokiona), 2.872 (asteburua landa etxean), eta 3.036 (afariari dagokiona).

'Zai, beti zai' antzezlan, bihar

Anoeta » Udaletxeako Pleno aretoan izango da Virginia Imazen emakumeekin loturiko «klown parodia».

ERREDAKZIOA

Bihar Anoetako Udal Pleno aretoan antzerkia izango da ikusgai. 22:30ean izango da Oihulari klown taldearen *Zai, beti zai* lana. Ordu batekoa da eta zuzendaria, berri, Virginia Imaz.

«Zenbait emakume jaso dugun heziketa afektiboaren inguru-

ko klown parodia da», aktoreen esanetan. Bi pailazo, Pu eta Gregorretta, zai daude... Beraien amesteko gizonaren zain. Baina printze urdina ez da inondik agertzen, eta bitartean, bi lagunek ikuslegoa konfidantzazko lagun modura hartuko dute eta beraien desiren eta zirraren berri emango diete zentzua galdu arte.

Ikusizunean, ikasitako mitoei buruz ironiaz hitz egingo da: Nola liluratu? Nork hartu behar du aurrea? Amodioa ala desioa? Era berean erromantizismoa, muxuak, fidelitasuna edota kondoiaren erabilpena nola negoziatu behar den

lagunarekin. Ikusizunak, asmoa guztiz didaktikoa duena, gozameneko nahiz hausnarketarako aukera eskaintzen du.



Zai, beti zai antzezlan. N. URBIZU



Bigarren eskuko azokak, arrakasta

ASTEASU » Asteasun, bigarren eskuko azoka antolatu dute gazteek. Hiru orduz aritu ziren gauzak saltzen eta haurtxoentzako tailerrak prestatzen. «Jendearen partaidetza izugarria izan da. Diru honekin eskiatzera joango gara eta udaletxearen laguntza ere espero dugu». Kaxkagor elkarteak ere «pozik» dago emaitzarekin. «12-16 urte bitartekoek halako ekintzak antolatzea oso aberasgarria dela ikusi da». Udalaren laguntza izan dute. HITZA

txokoa

5 sarrera pare zozketan



TXAN MAGOA

urtarrilak 2
asteazkena
17:00etan
Tolosako Leidorren

HITZAren harpidedunentzat abantailak

3 sarrera pare zozketan



Laskorain Ikastolaren 40. urteurrenaren baitan
Gipuzkoako 8 finalisten

Bertso Jaialdia

abenduaren 29an, 22:00etan
Tolosako Leidorren

Haur kabareta 5 sarrera pare

Agerre Teatroaren
eskutik

Irabazleak:

- Maria Angeles Ezeiza Tapia (Amarotz)
- Irudi Ileapaindegia (Tolosa)
- Karmen Iraeta Arsuaga (Tolosa)
- Maria Jesus Orrigain Ezeiza (Anoeta)
- Jasone Armendariz Nazabal (Altzo)

abenduaren 27 • osteguna • 17:00etan • Tolosako Leidorren

sarrerak leihatilan bertan izango dituzue





Gabonetan Euskal Preso eta Iheslarien aldeko ekitaldi ugari egiten dira. Irudian, Leaburu-Txaramako herritarrena. HITZA

Azken ostiralean eta azken egunean elkarretaratzeak

Politika » Natividad Junko gogoan, sakabanaketa politikaren amaiera eskatuko dute hainbat herritan.

ASIER IMAZ

Gabonen inguruan euskal preso eta iheslarien aldeko ekintza ugari egin dira. Hala eta guztiz ere, urteko azken ostirala eta azken eguna gainean ditugula kontuan izanik, bi eskualdeetako hainbat herritan manifestazio eta elkarretaratzeak jarraipena izango dute.

Horretaz gain, Etxerateg «sakabanaketa politikak beste senide bat hil digula» salatuko du. Unai Gonzalez euskal presoaren amaginarrebak, Natividad Junkok, Teruelako (Espainia) bisitan izandako auto istripuaren ondorioz, bizia galdu baitzuen herenegun.

«PSOE eta UMPk hil digute»

Euskal Errepresaliatu Politikoen Sentitartekoek, Etxerateg, manifestazioak egingo ditu bihar, azken ostiralean, ohiko elkarretaratzeen ordez, «17. hilaketa ekarri duen espetxe politikaren arduradunak salatzeko».

Etxeratego kideak Donostiako (Gipuzkoa) Artzain Ona katedralean aurkitzen dira Gabonetan,

«heriotzara eramaten gaituzten tratu krudelekin amaitu nahi duen orori, jasaten ari garen egoeraren berri emateko». Bertan izan zuten Natividad Junkoren heriotzaren berri eta bertatik zabaldu nahi izan dute «inpotentziaren amorrua».

PSOE espainiarraren eta UMP frantsesaren espetxe politikarekin amaitzeko, konpromezuak eskatu dizkie eragile sozial, sindikal, politiko eta erakunde buruei, «boron-daterik badago, bihar bertan amaituko baitugu honekin». Honetaz gain, Espainiako eta Frantziako bi alderdi nagusiei leporatu die Natividad Junkoren heriotza Etxerateg, «PSOE eta UMP alderdiek hil digute. Bi alderdien kalkuluetan sartzen den heriotza izan da».

Galdera zehatz bat ere luzatu dute Donostiako Artzain Ona katedraletik, konpromezuak eskatze aldera; «zergatikez ditugu hartzen behar adinako konpromezuak honenkin guztiarekin amaitzeko? Zein da arrazoi hitz hutsaletatik haratago ez joateko?».

«2007an 16 auto istripu»

Etxerateg jakinarazi duenez, «Natividad Junko sakabanaketa politikak eragin duen hamazazpigarren heriotza izan da». Politika hori sentitartekoentzat «heriotz zigorra» dela azpimarratuz. Horretaz gain, 2007an «sentitartekoek 16 auto is-

tripu» izan dituztela aipatu dute, «sakabanaketa politikaren ondorioz, asteburuero errepidean milaka eta milaka kilometro egitera» behartzen dituztela gogoratuz.

Abenduaren 31n, kalera

Azken ostiraleko manifestazioez gain, urteko azken egunean ere elkarretaratzeak egingo dira hainbat herritan.

Etxerateg 12:00etan elkarretaratzeak egingo ditu, «gaixotasun larriak dituztenen eta espetxe zigorrak beteak dituztenen» askatasuna eskatzeko eta «gure senide presoek osatzen duten Euskal Preso Politikoen Kolektibo osoaren Euskal Herriratzeara exijituz».

Ibarra, Leiza eta Leaburu

Ibarra 19:30ean elkartuko dira herriko plazan. Leiztan, berriz, 19:00etan plazatik irtengo dira manifestazioan, *euskal preso eta iheslariak etxera* lelopean. Leaburun, berriz, urtarilaren 1ean urtero bezala Larte mendira igokogara *Presoak Euskal Herrira* aldarrikatzeko, 10:00etan irtengo dira herriko plazatik.

Aiztondo Balarako Udalak

Villabona, Zizurkil, Aduna, Larraul eta Alkizako Udalek idatzi bateratu baten bidez eta giza eskubide guztien alde, *Euskal Presoak Euskal Herrira* lelopean, abenduaren 31n egingo duten manifestazio ixilean parte hartzeko deia zabaldu dute.

Manifestazioa Zizurkilgo plazatik irtengo da 19:00etan eta Villabonako plazan amaituko da.

Bost Udalek zortzi puntuko idatzi bat plazaratu dute, «dispertsoaren aurka eta Euskal Presoak Euskal Herrian egoteko duten eskubidea» aldarrikatuz. «Euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko idatzi hau izenpetzen dugun Udalo, gure ahaleginak egiteko konpromisoa berresten» dutela aipatu dute.

Idatzia Espainiako Barne Ministeriora eta Gasteizko (Araba) Legebiltzarreko Giza eskubideen Batzordera igorriko dutela jakinarazi dute, hala nola, Arartekoaren gida eta komunikabide guztietara bidaliko duten bezala.

Azkenik, Villabona, Zizurkil, Aduna, Larraul eta Alkizako Udalek, «herritar guztiak abenduaren 31n Zizurkildik 19:00etan irten eta Villabonan amaituko den manifestazioan parte hartzea» deitzen dituzte.



Etxeratego kideak Artzain Onan. HITZA

» AZKEN OSTIRALA

- **Aduna.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30ean.
- **Amezketeta.** 19:30ean.
- **Anoeta.** 19:30ean.
- **Asteasu.** 20:00etan.
- **Ibarra.** 19:30ean.
- **Ikaztegieta.** 20:30ean.
- **Leiza.** 20:00etan.
- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30ean.
- **Villabona.** 20:00etan.
- **Zizurkil.** 20:00etan.
- **Leaburu-Txarama.** Gaur, 20:00etan.

Ertzaintzak Ibarra atxilotutako gazteak salaketa jarri du

A. IMAZ

Ibarra Ertzaintzak gazte bat atxilotu zuen herenegun goizaldean «terrorismoa goraipatzea» leporatuta. Gazteak bere aldetik, Tolosa-ko epaitegian salaketa jarri du Ertzaintzaren aurka, «atxilotetaz gatik eta momentuan jasotako tratuagatik».

Ertzaintzaren bertsioa

Ertzaintzak jakinarazi duenez, «Ibarra San Inazio auzoan, abenduaren 25ean goizaldeko 07:15ak aldera, patruila batek pertsona bat ikusi zuen espraiarekin horma bat pintatzen ari zela. *Gora ETA* jarria zegoen. Atxilotu egin zuten eta gero aske utzi zuten».

Komunikabideetan agertua

Hainbat komunikabideetan, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren bertsioa bakarrik agertzen da. Hauek, besteak beste, argitaratu dutenaren arabera, «07:10 aldean, (...) patruila batek esprai batekin pintaketak egiten harrapatu zuen 33 urteko gaztea. Gazteak ertza-rik ikusi zituenean esprai potea lurrera bota zuela adierazi du Herrizaingo Sailak».

Gaztearen hitzak

Salaketa ipini ondoren, gazteak honela kontatu zuen gertatua: «Parrandatik etxerantz, San Inazio auzora jeisten ari nintzela, lagunak etxera joan eta gero, Ertzaintzaren patruila bat gelditu zitzaidan aurrean identifikazio eske eta ea esprai non nuen galdezka. Ze espraietaz ari ziren galdetu nien eta euren eskuak erakusteko. Erakutsi nizkien eskuak eta garbiak nituen. Ez nekien zertan zebiltzan. Gero beste patruila bat etorri zen eta ondoren kaleko arropaz besteak; hauek, gainera, Guardia Zibilak zirela esan zidaten. Pareta- ren aurka jarri ninduten, kolpe eta mehatsupean. Ondoren, atxilotu egin ninduten. Erabat biluztera behartu ninduten mehatsupean. Inpotentzia, gorroto, negar egiteko gogo... sentitu dut. Ezer egin ez dudala eta inongo frogarik gabe zer egiteko gauza diren ikusita».

Higiezin Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 366 994

Tolosa: San Estebanen, bi gelako etxebizitza berriua, igogailuarekin.

Tolosa: Berazubi, berritutako etxebizitza, kanpoaldera, bista ederrak.

Tolosa: Berazubi, 90m2ko etxebizitza, egoera onean, altzariekin.

Tolosa: Aldaba auzoa, 3 pisutako adosatu, lursailarekin, 297.000 euro.

Tolosa: Larramendi, etxebizitza 4. pisuan, igogailua, egoera bikaina, garajea aukeran.

Tolosa: Aldaba auzoa, 3 pisutako adosatu, lursailarekin, 297.000 euro.

Tolosa: Errementari kalea, hirugarren solairua, 3 logela, berriua.

Tolosa: Nafarroa Etorbidea, 2. solairuan etxebizitza, 90m2 erabilgarriak ditu.

Tolosalde: Baserrira, 10.000m2-ko lursailarekin, konpontzeko.

Tolosa: Belatan, garaje itxiak salgai. 18m2-tatik hasi eta handiagoak, obrak hasita daude.

Abaltzketeta: Etxebizitza polita altzariekin. Ikuspegi ezin hobea. Bi ibilgailuentzako garajea.

Albiztur: Konpontutako baserri polita, 13.000m2-ko lursailarekin.

Alegia: Eraiki berriak, 13 etxebizitza, 1 eta 2 logeletakoak, trastelekuarekin, 179.800 euro-tatik.

Altzo: 75m2-ko planta duen bi pisutako borda, 10.000m2-ko lursaila.

Altzo: Etxea salgai, konpontzeko, 3 etxebizitza egiteko lizentziarekin, 10.000m2 lursaila.

Anoeta: Etxebizitza harrizko baserrian, konpontzeko, 90m2.

Irura: Etxebizitza, atikoa, 3 logelarekin eta kanpoaldera begira. Oso eguzkitsua da. 237.500 euro.

Zegama: Baserrira, irisgarritasun ona, 70.000m2ko lursailarekin.



Belauntzan Olentzero. 20 bat hurrek hartu zuten parte, eta oparien ondoren txokolatada izan zuten. HITZA



Zizurkilen, Jesusen Bihotza ikastolan. Olentzero etorri zen ikasle guztiak agurtu eta gozokiak banatzera. Olentzerori abestu ondoren, txistorra jan zuten San Tomas ospatzeko. HITZA



Olentzero Albizturren. Herriarrek kalejira egin ondoren, hurrek beraien gutunak irakurri zizkieten. Aurten lehen aldiz ikusi dute hurrek Olentzero herriko plazan eta «oso arrakastatsua» izan da. ESTI EZEIZA



Alegian panpina ateratzen dute plazara eta Gabon kantak eskaintzen dizkiote. Txintxarri abesbatzak ere parte hartzen du ekitaldi honetan. PATXI RENOBALDES



Tolosako Zerkausian Olentzero hurrekin egon zen, eta muxuak jasotzeaz eta berarekin argazkiak egiteaz gain, goxokiak ere banatu zituen. KLISK



Leitzan aurten ekitaldi berezia egin dute, eta astoan ibili ordez gurdian egin zuen buelta herrian. Aurrena menditik jaitsi zen Gazteluneko herrira eta hor umeek bertsoak kantatu zizkioten. Ondoren, plazara joan ziren, han prest baitzuen txabola. Maimur pertsonai mitologikoaren bisita jaso zuen eta dantzariak ere bere omenez dantzatu zuten. MIKEL ILARREGI

Zakua hutsik zintzurra bustita, badoa

'Liburuzainaren bahiketa' antzezlanaren liburutegian, Xoxipe taldearen eskutik

Leitza » Udal Liburutegia antzeztoki magiko batean bilakatu zen atzokoan, bertan ume gehiegi bildu ez ziren arren.

NAIARA GARZIA

Atzo Leitzako Udal Liburutegian Xoxipe antzerki taldekoek *Liburuzainaren bahiketa* lana antzeztu zuten, 11.30etik aurrera.

Espero baino ume gutxiago bildu ziren arren, bertaratu zirenak ez ziren aspertu *Liburuzainaren bahiketa* antzezlanarekin.

'Liburuzainaren bahiketa'

Xoxipe antzerki taldekoek antzeztutako lana Margaret Mahy idazlearen istoriorik ezagunenetarikoa da eta 6 eta 8 urte bitarteko umei zuzendua dago. Gaizkile talde baten istorioa kontatzen du; hauek Laburnun andereñoa bahitzea erabakitzen dute, liburuzain eder bat, gero udaletxeari dirutza bat eskatzeko asmoz. Gauzak, ordea, ez zaizkie uste bezala ateratzen, gaizkile xelege talde honen helburua hori bazen ere, liburuekin harremanetan jartzeak aldatu egingen baititu.



Leitzako Udal Liburutegia antzeztoki magiko batean bihurtu zen atzo, N.G.



Xoxipe antzerki taldeak *Liburuzainaren bahiketa* istorioa antzeztu zuen, N.G.

Aurrera, oraingo, zazpigarren

Futbola » Azkeneko partidarekin batera lehenengo itzulia amaitu da eta Errege Bezerpan hasiko da bigarrena.

N. GARZIA

Joan den asteburuan jokaturako azkeneko norgehiagokarekin amaitu da lehenengo itzulia, eta Aurrera zazpigarren doa sailkapenean (orotara 16 talde dira), aste-

buruan Garesen aurka 1-3 galdutik ondoren.

Unai Olano jokalaririk azaldu duenez, «gu nahiko hobeak izan ginen. Mendeagenuela hasi zen partida eta Javi Urteagak sartu zuen lehenengo gola, penaltiz». Atsedendira, ordea, bateko berdinketarekin joan ziren. «Bigarren zatian ere oso ongi hasi ginen», dio Olano, «baina 3 minutu txar izan genituen, 2 akats egin genituen eta partidak alde egin zigun. Gero ere aukerak sortu genituen, baina ez

genuen zortetik izan. Hala ere gus-tura gelditu ginen, azkenaurreko partidaren ez bezala, partida oso ona egin baikenuen».

Bigarren bueltari dagokionez, «ongi» hasiko direla uste du Olano. «Maila gehixeago egotea espero nuen, lehentasunezko maila jaitzi egin da, eta lehenengo seien artean egonen gara uste dut».

Errege Bezerpan jokaturako dute hurrengo partida, bigarren itzuliko lehenengo, Lagunak taldearen aurka.



Orkatz Erbitik neolitiko garaiko trikuharriak jarri ditu aurtan bere jaiotza, N.G.

Gabonetan murgiltzeko lau jaiotza ikusgai

Jaiotzak » Elizan jarri ohi dutenaz gain, herriarrek beste hiru egin dituzte: udaletxean, karrapean eta Oialde Txokon.

N. GARZIA

Gabonetan jaiotzak etxe askotan jartzen dituzte, baina badira ere norberaren etxetik haratago herriarrek ikus ditzaten egiten dituztenak ere. Leitzan, zentzu honetan, esaterako, 4 jaiotza jarri dituzte: elizan aspalditik jaiotza hagitz handia egiten dute herriarren gozamenerako, baina honetaz gain beste 3 daude ikusgai: Itxaro Lizarraga eta Lorea Arantzetak udaletxean egin dutena, Orkatz Erbitik egindakoa (karrapeko tabernan), eta Koxkain taldeak Elkarteko Kato-likoaren bidez egin duena, Oialde Txokon.

Itxaro Lizarragak aurtan etxetik kanpo jaiotza jartzen duen lehenengo aldia da. «Urtero jarri izan dugu, bai etxean, bai lantegian. Lagun batek irudi zaharkitu batzuk opartu zizkidan eta beste lagun batek konpondu egin zituen. Hauek nola gelditu ziren ikusita animatu eginginen eta nahiko txukun gelditu da». Honetaz gain, jaiotzaren mezua ere azpimarratu nahi izan du Lizarragak. «Belengo herriarren elkartasuna nabar-

mentzeko egin dugu, lehen eta orain. Argiaren premia ere azpimarratu nahi genuen, izadia mugitzen duen indarra baita».

Orkatz Erbitik aurtan bigarren aldia du eta lehenengo urtean baino handiagoa egin du. Abenduaren 23an zabaldu zuen. «Aurtan gauza gehiago jarri dizkiot: neolitiko garaiko trikuharriak, erreka handitu egin dut, laku bat egin dut, ur-jauzi bat...» dio Erbitik. «Baina gehien gustatzen zaidana harria da, menditik ekarritako harria». Orkatz Erbiti duela hilabete inguru hasi zen jaiotza prestatzen, abenduaren 23rako prest egon zedin.

Oialde Txokoko jaiotza

Oialde Txokoko jaiotza egin dutenak ere aspaldi hasi ziren eta abenduaren 21ean zabaldu zuten. «Lehenengo urtean apaizaren bidez poliespana eta buztinarekin irudiak egiten zituzten Iruñeko 2 pertsonen harremanetan jartzea lortu genuen eta hauek 2 astetik behin etorri dira urte osoan zehar». Dena, beraz, eskuz egin dute. Antolatzaileetako batek azaldu duenez, atentzio gehien eman diona poliespanak lor dezakeen itxura naturala da. «Errotandako iturriak ez du poliespanarekin eginda dagoenik ematen». Jaiotza honek ere badu beste ustekaberik. «Oso jende gutxi ezagutzen duen herriko baserri bat ere egin dugu».

Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel: 943-65 56 95

JOSE M. RUIZ DE AZUA
EGIA

Gu ere lagun gaituzue.

Aurtzaka Dantza Taldea



BEASAIN
2007ko
abenduaren 27a



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialea: 687 410 034. alegialea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzailea: 687 410 118. leitzailea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaileko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Zizurkil.** Futbol txapelketa Villa-bonako kiroldegian, 21.30etik 13.30era, 13 eta 18 urte arteko gaz-teentzako.

■ **Zizurkil.** Txuri Urdinera irteera urtarillaren 12an Lehen Hezkun-tzako 5. eta 6. mailakoentzat. Gaur da izena emateko azken eguna, Zi-zurkilgo udal bulegoetan.

■ **Villabona-Aiztondo.** Aiztondo-ko Zerbitzuen Mankomunitateak bi irteera antolatu ditu, urtarillaren 4ean, bata 2-5 urte bitartekoent-zat Eguberri Parkera eta bestea 6-12 urte artekoentzat Eguberri Par-keara eta Txuri Urdinera. Izen-ema-tea, 943 693930 telefonoan.

■ **Tolosa.** X. Elkartasun Krosa Ko-lonbiako proiektu baten alde, abenduaren 31n, 16:00etatik au-rerra Zerkasun. Izen-ematea, Aralar Kirolak dendan.

■ **Tolosa.** Gabonetako Haur Par-kea Zerkasun: gaztelu puzga-rriak, jokuak... Sarrerak doan. 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:30era.

■ **Tolosa.** Udaberri dantza taldeak, bere 50. urteurrenako ospakizu-nen barruan, urteko azken dantza emanaldia eskainiko du Leidor aretoan bihar, 22:30etik aurrera. Sarrerak salgai, 5 eurotan, Leido-rran bertan.

■ **Lekua.** Bilbon etzi jokatuko den Euskal Selekzioaren eta Katalunia-ren arteko partidara joango dira Topagunekoak, 17:00etan Trian-gulotik abiatuta. 12 euro ordaindu beharko dira Topagunean.

Erakusketak

■ **Alegia.** Jubilatuen tabernan Ana Jesus Ansoerenaren zeramikazko lanak ikusgai; Afrikako emakume-ei egin dien omenaldiarekin daude lotuta.

■ **Tolosa.** Charo Berra Erroren *Zuhaitza: bizia eta kolorea* pintura erakusketa Aranburu Jauregian.

■ **Tolosa.** Jabier Villarreal Armen-tarizen *Paralelo 42* argazki monta-jeen erakusketa Aranburun.

Zinema

■ **Tolosa.** L. Mankiewicz-en *Eva al desnudo* filma, Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-kluba-ren barruan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, MI. Kale Nagu-sia, 7. 943 67 06 48.

■ **Irurtzun.** Mutiloa, AM. San Mar-tin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Olaia Zubeldia Azkolain (Ibarra). Gaur 3 urte. Muxu handi bat Tere birramonaren partetik.



Zorionak!

Oier Txapartegi (Tolosa). Gaur 7 urte. Pilotari trebe eta maitagarriari, mila muxu. Amatxo.



Zorionak!

Lucia Torquemada. Gaur urtebete. Muxu bat familiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Unanueren azkena, Tolosan

TOLOSA ■ Mikel Unanue pilotariak bere azken partida jokatu zuen atzo Beotibarren. «Azkenaldian hainbeste ez nuen gozatzen, eta horregatik hoberena uztea izan dela erabaki dut», adierazi zuen 39 urteko Añorgako pilotariak. Garai-penen artean Eugiren aurka iraba-zitako Lau terdiko txapela gogora-tu zuen Unanuek. Askotan bere kide izan zen Errastik pilota uzteko hautatu zuen frontoi berean jokatu zuen partida Unanuek atzo Beloki-rekin Koka eta Peñagarikanoren aurka, eta 22-18 irabazi zuen. E.E.

ABENDUAK 29

EUSKAL HERRIA

NAZIO BAT SELEKZIO BAT

11:00etan PIRRITX eta PORROTX

12:30etan KIROL ERAKUSTALDIAK

selekzioko kirolariak sinatzen

13:30etatik aurrera BERTSO TXOTX sagardoa ziritik,

15:00etan **GOZATEGI** txekor errea, taloak, ...

PARTIDUA PANTAILA ERBALDOIEAN

EUSKAL HERRIA - CATALUNYA

eta ondoren kontzertuak **BETAGARRI**

Bilbo

TXIMELETA

MANIFESTAZIO

17:30etan **nazionala**

La Casilla

www.naziotbatselekziobat.org **C esait**